

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### NEKAZARITZA SAILA

#### Lurzatiak biltze pribatua, Ziraoko aldea - 2. fasea ordezko finkez jabetzeko abisua

Nekazaritza Zuzendaritzaren 2015eko irailaren 21eko 1838/2015 Ebazpenaren bidez hasitako Ziraoko 2. faseko lurzatiak biltze pribatuan interesdun diren guztiei jakinarazten zaie honako hau:

Lehenengoa. Nekazaritza Zuzendaritzak erabaki du behin betiko jabetza ematea ordezko finka berriei, Ziraoko 2. faseko lurzatiak biltze pribatuaren erabakia betetzeko, behin erabaki horren aurka ezarritako gorako errekursoak ebatzita eta ordezko finka berrien mugaketa eta mugarritzea eginda.

Bigarrena. Horren ondorioetarako, jakinarazten da finkez jabetzeko eguna abisu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo eguna izango dela.

Hirugarrena. Nekazaritzaren Erreforma eta Garapenerako Legeak 221. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordezko finkek haiez jabetzeko jabeen eskura jartzen diren egunaren hurrengotik aurrera hogeita hamar eguneko epean, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, adituaren irizpenarekin batera, finka berrien edukiera erreala eta lurzatiak biltzearen espedientean agertzen denaren arteko ehuneko 2tik gorako aldeei buruz.

Laugarrena. Jabe eta laborari guztiek nahitaez errespetatu behar dituzte eremuko finka guztietara normaltasunez sartzeko eta haien lantzeko beharrezkoak diren bide, hustubide, ureztatze ubide eta zortasunak, eta haien ohiko erabilera eta kontserbazioa ahalbidetu behar dituzte. Aipatutako jabetzaren berrantolaketak ez du eskatzen eremu hartan azpiegiturak egiterik.

Bosgarrena. Jabe desberdinen ordezko finken kokapena erabakitzeko, kontuan hartu da emandako lurzatiak non dauden eta eraginpekoak zer laborantza mota egiten ari diren. Lurrak ez dira ez sailkatu ez balioztatu, trukeetara agertu direnek iritzi baitiote trukaturako lursailak balio berekoak direla. Eremu horretan lurzatiak biltze pribatuak dakarren hobekuntza jabetzak antolatzean eta mugarritzean datza.

Ondorioz, lehendik zegoen lurgaina ordezko finketan txertatuta geratu da eta, beraz, ezin dute kendu emandako lurzatiaren lehengo jabeek.

Era berean, ordezko finken jabe berriek ezin izango dute sastrakarrik kendu, landarerik moztu edo lurgainik kendu, baldin eta Mendi Zerbitzuaren idatzizko aldeko eta berariazko baimenik ez badute.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a

*Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua*  
**JOSÉ ANTONIO OCIO ORIVE**